

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2521

90/2018 EBAZPENA, maiatzaren 3koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Gobernu Kontseiluak hartutako erabaki bat. Erabaki horren bidez indarrrik gabe uzten da Ermuko (Bizkaia) Ureta zg. Industrialdeko Tenneco Automotive Iberica S.A. Enpresaren instalazioetako kanpoko larrialdietako plana.

2018ko maiatzaren 2an egindako bileran, Gobernu Kontseiluak honako erabaki hau hartu zuen: Tenneco Automotive Iberica S.A. enpresaren (Ureta industrialdea z/g, Ermua, Bizkaia) instalazioetako kanpoko larrialdietako plana indarrrik gabe uztea. Horri beharrezko publikotasuna emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Tenneco Automotive Iberica S.A. enpresaren (Ureta industrialdea z/g, Ermua, Bizkaia) instalazioetako kanpoko larrialdietako plana indarrrik gabe uzten duen erabakia, Izan ere, enpresa horrek ez dauka kanpoko larrialdietako plan bat izateko betebeharririk. Eranskinean dago jasota erabaki hori.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 3a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JUAN ANTONIO ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL.

2018ko maiatzaren 11, ostirala

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 3KO 90/2018 EBAZPENARENA**GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ INDARRIK GABE UZTEN BAITA TENNECO AUTOMOTIVE IBERICA S.A. ENPRESAKO INSTALAZIOEN KANPOKO LARRIALDIETAKO PLANA –URETA INDUSTRIALDEA Z/G, ERMUA (BIZKAIA)–**

Babes zibilaren arloan, Estatuko araudi oinarritzakoa honako hauek osatzen dute: Babes Zibilaren Sistema Nazionalaren uztailaren 9ko 17/2015 Legea, irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaz garatua, zeinak istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen baititu; eta 1196/2003 Errege Dekretua, irailaren 19koa, gai arriskutsuak tarteko diren istripu larrietako arriskuen aurreko kontrola eta planifikazioa egiteko babes zibileko oinarritzko jarraibidea onartzen duena. Araudi horrek aurreikusten du babes zibileko larrialdia sorlezaketen jardueren katalogo ofizial bat, eta, bestalde, halako jarduerak burutzen dituzten enpresei –enpresa horiek goragoko mailako establezimenduen kalifikazioa dute, euren instalazioetan dauden substantzia arriskutsuen tona-kopurua dela-eta– KLPa izateko obligazioa ezartzen die, izan litezkeen istripu larrien ondorioak aurreikusi eta arintzeko, aldeztu aurretik haiek aztertu, sailkatu eta ebaluatuta. Aipatutako KLP horretan, finkatu egin beharko dira babes neurri egokiak, behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak eta esku hartuko luketen agintaritza, organo eta zerbitzuak koordinatzeko eskema.

Tenneco Automotive Iberica S.A. enpresaren instalazioei –Ureta industrialdea z/g, Ermua, Bizkaia– KLP bat jarri zitzaien, zeina Gobernu Kontseiluaren erabakiz onartu baitzen 2011ko urtarrilaren 18an (2011ko otsailaren 11ko EHAA, 28. zk.). Izan ere, babes zibilaren arloan orduan indarrean zegoen araudiaren eraginpekoa zen enpresa hori (1254/1999 Errege Dekretua, uztailaren 16koa, eta horren aldaketak; 119/2005 Errege Dekretua, eta 948/2005 Errege Dekretua).

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko organo eskudunak eginiko jakinarazpenaren arabera, enpresa horrek hainbat neurri ezarri ditu biltegiatze-instalazioetan, eta, neurri horiez gain, erosketa-politika bat ere ezarri du. Horien guztien ondorioz, establezimendua dagoeneko ez dago istripu larrien araudiaren eraginpean (gaur egun, 840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurri buruzkoa). Horrenbestez, enpresa hori ez dago behartuta kanpoko larrialdietako plan bat izatera.

Horregatik guztiagatik, Segurtasuneko sailburuak proposatuta, eta aurrez eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak hau erabaki du:

ERABAKIA

«Lehena.– Indarrik gabe uztea Tenneco Automotive Iberica S.A. enpresaren (Ureta industrialdea z/g, Ermua, Bizkaia) instalazioetako kanpoko larrialdietako plana, zeina Gobernu Kontseiluaren erabakiz onartu baitzen 2011ko urtarrilaren 18ko saioan. Izan ere, enpresa hori dagoeneko ez dago behartuta kanpoko larrialdietako plan bat izatera.

Bigarrena.– Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendari-tzak erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emango du».